



## **HUYCK WANGNER SPAIN** **ALEMANIARA BIDAIA**

### **I. HUYCK WANGNER SPAIN lantokiari buruzko datuak:**

HUYCK WANGNER SPAIN lantokiko langileen partetik gatoz, eta lantegi honen egoera larriaz, eta enpresa taldeak gurekin eduki duen jokabideaz berri ematera etorri gara.

Lantegi hau Euskal Herrian dago kokatuta, Zizurkil izena duen herri txiki batean hain zuzen, eta 80 langile ditu momentu honetan, eta taldeko beste hainbat lantokitan bezala, paper fabrikentzako tela transformatzaileak egiten dira bertan.

Enpresa hau duela ia 100 urte sortu zen Tolosa izeneko hirian, inguruko paper-fabriken elkartearen ekimenez, eta belaunaldi guzti hauetan, eskualdeko familia askoren bizimodua izan da. Izan ere, familia batzuetan belaunaldi batek baino gehiagok egin du eta egiten du lan momentu honetan (kasu batzuetan familia berdineko lau belaunaldik egin dute lan).

Aurreko mendeko 70. hamarkada bukaera eta 80. hamarkada hasieran, WANGNER talde alemaniarrek erosi zuen enpresa, eta Tolosatik Zizurkilera aldatu zen.

Mende honen hasieran, berriz, HUYCK austriarra eta WANGNER alemaniarren elkartu egin ziren, eta taldea XERIUM multinazional estatubatuarrak irentsi egin zuen. Beraz, egun, Zizurkilgo enpresa multinazional erraldoi estatubatuar baten esku dago.

Europar, multinazional honek beste hiru lantegi ditu, Italia, Austria eta Alemanian banatuta, eta hauetako azkena, alemaniarra, Europako nagusiena da.

XERIUM taldea egoera ekonomiko zailak igarotzen ari da 2010. urtetik hona, baina Zizurkilgo lantegiak, krisia-krisi, etekin onak eman ditu urte guzti hauetan.

## **II. Bizi dugun egoeraren azalpena:**

### a) Enpresaren planteamendua:

Testuinguru honetan, urtarrilaren 21ean, XERIUM-eko kontseilariak eta hauen abokatuek Donostian bilera batera deitu gintuzten, hartu behar zituzten neurrien berri emateko.

Egoeraren azalpen labur batzuk eman eta gero, haien abokatuek esan ziguten hartutako erabakia: ERE bat aurkeztuko zutela, eta Zizurkileko lantokian momentu horretan zeuden 81 langileetatik 75 kaleratuak izango zirela. Honek, argi eta garbi, lantegiaren itxiera suposatzen du.

ERE-tik kanpo geratzen ziren 6 langileak komertzialak dira, eta enpresaren asmoa hauek bulego txiki batean geratzea da, delegazio komertzial gisara.

Emandako arrazoiak, nagusiki, bi izan ziren:

- Batetik, papergintzaren sektoreak eta multinazionalak jasaten ari diren krisia.
- Bestetik, Zizurkilgo lantegian dagoen makinaria zaharkituta dagoela, eta hau berritzeko gehiegizko inbertsioa egin beharko litzatekeela (19 eta 24 milioi euro artekoa, haien esanetan).

### b) Erabaki estrategiko eta subjektiboa izan da:

Guk, lehenengo momentutik, haiek ezarritako aurrekariak ez ditugula onartzen, eta errealitatearen zati garrantzitsuenak aipatu ez izana leporatu genien. Izan ere, egun hartan esan ez zigutena zera da:

#### 1. argudioari buruz: krisia.

+ Zizurkilgo lantegiak, krisia krisi, urtero benefizioak eman ditu: 2011. urtean 102.000 € eta 2012. urtean 96.000 €.

+ Salmentako datuak kontutan izanda, Europako lau lantegietatik gutxien jeitsi dena izan da.

+ Datu guztiak aztertu eta ondoren, bi ondorio atera daitezke: bata, hau guztia aspaldi prestatzen hasi zirela, nahiz eta orain ikusi duten momentu egokia dela erabakia hartzeko. Bigarrena, sakeo bat egon dela Zizurkilgo lantegiaren kontura. Hau guztia azaltzeko, datu gutxi aski dira:

- 2009. urtean, Zizurkilgo lantegiak mailegutan 4,3 milioi euro eman zizkion XERIUM multinazionalari (zehazki, Xerium Germany Holding GMBH konpainiari). Baina okerrena da, ondoren mailegu hori kondonatu edo barkatu egin arazi ziotela Zizurkilgo lantegiari. Mailegua opari bat bihurtu zuten.
- 2010. urtean, beste milioi bat euro baino gehiago eman zion mailegutan multinazionalari (kasu honetan Xerium Technologies Ltd enpresari).
- Bestalde, talde barneko salmenta neurriak ere guztiz desorekatuak izan dira, multinazionalaren mesedetan. Zizurkilgo lantegiak gero eta garestiago erosten zizkion lehengaiak multinazionalari, eta gero eta merkeago saldu egindako produktua.
- Salmentarako muga zorrotzak jarri dizkiote hemengo lantegiari, bai egin beharreko produktuetan eta bai herrialde askotako merkatuetan sarrera debekatuz.

Baina guzti honen gainera, gauza bat nabarmendu beharra dago: egindakoa egin ondoren, Zizurkilgo enpresak datu ekonomiko oso onak dituela (zorpetze maila txikia, etekinak ematen ditu, likidezia maila ona du, etab.). Hau da, lantegi honen sendotasun ekonomikoa frogatuta dago.

## 2. argudioari buruz: makinariaren zaharkitzea.

+ Produktibitate ratioak kontutan hartuta, hiru-hilabete askotan mundu mailan multinazional guztiko lantegirik hoberena izan da azken urteetan, hau da, langile bakoitzeko produkzio gehien egin duena (Alemania, Japonia eta Canada bezalako herrialdeetako lantegien gainera). Datu hori ez da guk emandakoa, enpresak emandakoa baizik.

Galdera bat sortzen da hau esandakoan:

Nola liteke orduan, makinaria horren zaharkitua izanik produktibitate hoberena izatea mundu mailan? Orain arte izan duten kontraesan askotariko bat besterik ez da hau.

+ Hemen erabiltzen diren makina batzuk berri beharko lirateke? Seguruenik bai, enpresa guztietan bezala. Baina argi duguna ere zera da, 19 eta 24 milioi arteko inbertsioarena ez duela ez buru eta ez hankarik, guztiz neurrigabea da esan duten kopuru hori, puztuta daude dudarik gabe. Enpresak bere txostenean beharrezko inbertsio honen partida orokorrak ematen ditu, eta horien artean, adibide bezala partida batzuetan zera dio:

- Zehaztasunik gabeko zenbait partidengatik 1.760.000 eta 3.090.000 € artean inbertitu behar dela diote (“otros costes equipo” eta “otros costes rehabilitación”). Ez du esaten zer ordaindu nahi duten dirutza horrekin.
- 4,5 eta 4,7 milioi € beharko liratekeela ere esaten dute, “instalazioen berregokitze lanetan”, eta hori ere ez dakigu zertan datzan zehazki.

- Aire girotuari eta aislamentuari milioi 1 € baino gehiago inbertitu behar direla derrigorrez enpresan produkzioak jarrai dezan.

+ Zaharkituta egon daitezkeen makinei buruz ere esatekoa badago: Alde batetik, logikoa denez, makinak ez dira egun batetik bestera zahartzen. Hau da, urte askotan inbertsioa egin ez dutelako gertatu da, haien erabaki baten ondorio zuzena hain zuzen. Gainera, makina zaharrek dagoeneko amortizatuta daude. Bestetik, urtez urte, lantegiak emandako benefizioez gain, diru kopuru bat makinaria berritzeko gordetzen joan dira aurkeztutako kontuetan. Beraz, non dago orain diru guzti hori?

Emandako arrazoiei buruz, azken ondorio bat: Hemengo langileen soldatak ere ez dira arazo bat, izan ere, produkzioa eraman nahi duten herrialdeetako lan-sariak askoz handiagoak dira (Alemania, Austria eta Italiakoak, alegia).

### c) Erreforma laborala:

Hau guztia ikusita, argi dago, hartutako erabakia ez dela arrazoi objektibotan oinarritu, erabaki subjektiboa edo estrategikoa izan da zalantzarik gabe. Errealitatean, lekukotze edo deslokalizazio baten aurrean gaude.

Badirudi emandako datuekin ez duela logika handirik hartu duten erabaki hau hartzea, baina ezkutuko arrazoiak argi baieztatu ahal izan dugu prozesu guzti honetan:

**Aspaldi hartutako erabakia izan da, urtetan Zizurkilgo lantokia desjabetzen eta berrikuntzarik egin gabe utzi dute. Eta orain, Espainiako Erreforma Legalez baliatuz, erabakia exekutatzeko momentu egokia dela pentsatu dute, oso erraz eta merke delako orain enpresa bat ixtea.**

Enpresaren zuzendaritzak, erabakiaren arrazoiak hitz egiten duenean, azaldu digu ez dela Zizurkilgo lantegiak gaur egun dituen emaitzetan oinarritzen, baizik eta erabakia justifikatzeko etorkizuneko aurreikuspenetan oinarritzen dela. Aurreikuspenak! Ze objektibotasun, ze ziurtasun daukagu langileak multinazionalak aurkeztutako futurologia interesatu honen aurrean?

Gezurra badirudi ere, hori legala da. Espainiako Erreforma Laboralak Langile Estatutaren 51. artikulua aldatu zuen, beste artikulua askoren artean, eta orain, aurreikuspenetan oinarrituta jendea despeditu egin daiteke, edo baita enpresa oso bat itxi ere. Honela, hemendik aurrera, krisiaren eraginez ixten diren enpresez gain, legedia injustu honetan babestuz enpresa asko eta asko itxi litezke.

Errealitatean, azaldu dugun bezala, lekukotze baten aurrean gaude. Arazorik ez zuen enpresa bat itxi nahi dute.

Arazo honen aurrean, Alemaniako langileekin bi hausnarketa partekatu nahi ditugu:

- 1.- Europar zehar egiten ari diren erreformak honelako bidegabekeriak

legalak izateko egiten ari dira. Eskubide laboralak desregularizatu eta babesik gabe utzi nahi dituzte.

2.- Gu berandu konturatu gara, baina oso garrantzitsua da enpresak egiten dituzten mugimenduei adi egotea, arazoa gainean eduki baino lehenago konturatu eta aurre hartzeko.

#### d) Langileon erantzuna:

Langileen erantzuna, lehen bileratik, oso argia izan da. Honelako eraso baten aurrean, ahal duten guztia ematen ari dira euren lan postuak defendatzeko. Sindikatuaren laguntzarekin eta elkaturik, beren bizitzako borroka zailenean daude:

+ Urtarrilaren 28tik greba mugagabeen daude

+ Lantegi aurrean akanpada iraunkorra egiten ari dira egun horretatik, makinaria eraman eta lantokia hustu ez dezaten.

+ Manifestazioak, kontzentrazioak, enkarteladak, kotxe-karabanak, sinadura-bilketak, prentsaurrekoak, Administrazio Publikoarekin bilerak... Negoziazioak dirauten bitartean, denetik egiten ari gara, baina tamalez bakarrik gaude borroka desorekatu honetan.

Printzipio zahar bat praktikara eraman nahi dugu: langileon elkartasunak indarrak batu ez baino, biderkatu egiten ditu.

Gure lantokia baino lehen, Frantziakoa eta Ingalaterrakoa ere itxi zituzten, eta egia da orduan ez genuela ezer egin indarrak batzeko; ez guk, eta ezta ere beste lantokietako lankideak ere. Guretzat agian beranduegi izango da, baina gauza bati buruz ziurtasun osoa dugu: elkartasunaren indarra beharrezkoa zaigu gurea bezalako egoera zailenetan, baina baita ere egoera normaletan ere. Informatuta eta koordinatuta egotea lantoki guztietako langileon mesederako izango da.

#### e) Borrokaren bilakaera:

Egindako lan guztiaren ondorioz, lehenengo ERE-a kentzea lortu genuen, baina segidan, bi asteko tartearekin, beste ERE berri bat jarri zuen enpresak, aurrekoaren berdin-berdina. Bi aldaketa txiki egon dira bakarrik: dokumentazio gehiago aurkeztu dutela, formalidadeak hobeto betetzeko asmoz, eta bigarrena, lehen eskaintzen zituzten kalte-ordainetan hobekuntza txiki batzuk.

Bigarren ERE hau ere 74 langile kaleratzeko da (langile batek bajan eman du prozesu honetan), martxoaren 25ean aurkeztu zuten, eta negoziaketa epea apirilaren 25ean amaituko da. Hiru bilera egin ditugu orain arte bigarren epe honetan, eta zuzendaritzaren planteamendua ez bada asko aldatzen, ez dugu

gehiago negoziatuko.

#### f) Enpresaren jarrera:

Enpresaren jarrera, hasiera-hasieratik, guztiz itxia izan da. ERE-aren kontsulta epea, negoziatzeko baino, gu konbentzitzen saiatzeko erabili nahi izan dute. Ez dute enpresa irekia mantentzea planteatu ere egin nahi, eta guztia kaleratzeen ordain-sarietara mugatu nahi dute.

Eta hau ez dugu guk bakarrik esaten, Gizarte Segurantzako Inspektoreak, negoziaketetan parte hartu duenak, bere txostenean ez du zalantzarako tarterik utzi, eta argi adierazi du enpresak ez duela negoziatzeko inolako borondaterik azaldu.

Honetaz gain, joko zikina ere erabiltzen ari da, hasieratik eta etengabe, langileak etsitzeko asmoz:

+ Lehenengo ERE-a aurkeztu baino aste bat lehenago, produkzio guztia enpresatik atera eta biltegi batzuetara eraman zuten, Greba egongo zela aurreikusiz.

+ Lehenengo ERE-a aurkeztuko zutela esan ziguten bileratik, enpresako sarreran segurtasun pribatua jarri dute.

+ Enpresarekin harremana duen guztia esternalizatu egin dute: Donostian zituzten abokatuen ordezkariak Madrilgo abokatuak hartu dituzte, jarritako segurtasun pribatuko enpresa eta langileak kanpokoak dira, eta orain arte Zizurkilen egondako zuzendaritza ere kaleratua izan da. Hau da, bakarrik utzi nahi izan gaituzte, bitartekaririk gabe.

+ Prentsa gabinetek ere kontratatu dute, eta komunikabideetara euren bertsio manipulatuak zabaltzen saiatzen ari dira.

+ Okerrena zera izan da: lehenengo ERE-ko negoziaketa epea bukatu eta despido gutunak bidaltzeko egunaren bezperan, enpresak, langileei ezer komunikatu gabe, ERE-a kendu zuen, bi astez inongo informaziorik eman gabe eduki zituen eta azkenik, prentsaren bitartez enteratu behar izan ginen beste ERE bat aurkeztu nahi zutela. Gainera, ikusirik bigarren hau lehenengoaren berdina dela, nik uste oso argi dagoela, desgaste estratategia erabiltzen ari dela enpresa, langileak behingoz etsi eta merke-merke kaleratuak izan daitezten.

#### **III. Ez da beste drama ba, eraso bat da:**

Guzti hau kontatu ondoren, eta gaur egun bizi dugun krisia kontutan izanik, jakitun gara, oztopo bat daukagula zuengana edo edozein erakunderengana jotzen dugunean:

Bizitzen ari garen egoera horren larria da, arriskua dagoela, gizartean orohar, edozein dramaren aurrean inmutatuak geratzeko. Jadanik normaltzat jotzen dira edozein garaitan arazo larria irudituko zitzaiguna.

Baina guk gaur hona ekarri dugun kasua ez da krisiak sortutako beste

drama bat izan, ezta gutxiago ere. Hau eraso larri bat izan da.

Esan dugun moduan, erabaki estrategiko bat izan da, eta ez da arrazoi objektiboetan oinarritu.

Garaiz gaude, zerbait egin beharra dago, eta bakarrik ezin dugu. Elkartasunerako deia egiten dugu, guretzako beranduegi izango balitz ere, etorkizunerako egin ditugun akatsak beste batzuek errepika ez ditzaten.

Milesker.